

Garittik urunera

Siñistu be ezin bada ein, Ermuen erein eta Ongaraiko haize epel eta euzki beruakin aurrera eindako gari-buruek jo zien San Martin Azoka egunien. Eskola-umien kargu egon da lurpien emon dittuen 9 hilabetietan. Garixaren gaiñeko kulturian harire bi andrazko ekarri doguz gurera: Beatriz Ugena irakaslia, ekimen honen bultzatzaillia eta Juli Mendizabal berriztarra, Ermuko azken errotarixe. Ondoren beronen berbak.

- Noiztik errotari?

Txomin gizona eta bixok Errotabarrire ezkondu giñen 1951n eta hamarren bat urte euki genduen. Baiña neuk ein biher izeten neban errotan, neu nintzen hango errotarixe, ze gizonak bihera eitten eban Zubi-Ondon.

- Errotie mobitzeko inderra, nundik?

Elektrizidaderik ez gendun gastatzen guk. Ure. Goikalde-
tik etorten zan uroi, Forjas Ermua-tik behera; errekan hartute euen gure etxera holako porlanezko bide bat, erreten bat, eta haren urekin bete-bete eitten zan andapadie, ur-deposittue. Handik behera jausten zanien uroi, dzast! joten eban behe-behien euan burdinezko errobera bat eta bueltaka hasten zan berau. Aparte 2 harri biribil euazen, bata bestiaren gaiñien; ri-ra, ri-ra! ebalten zien eta arto edo gari aliek bi-

xen bittartetik urun-urun eindde urtete eben. Harrixok aliek apurtzeko erreixa batzuk ekezen aprapos einde eta ibillian ibilliaz gastau eitten zienez, gure gizonak, taka-taka-taka! pikau eitten zittuen; segiduen ipintzen zittuen barriro martxan. Gizonak asko laguntzen ostan etxera etorten zanien, baiña halan ta guzti be beti pixuaz ibilli biher. Ha zan bihera! Nik nahixao dot taillarrien eittie, han eittie baiño. Sasoi ona neuk eta ibilli! Estaduen egonda be, tripa haundixaz eta pisu galantak ebalten nittuen, zaku batzuk 40 eta 50 kilo be hartzen eben-eta. Oin, baserrittarrak lagundu be eitten eben pisuok karriatzen, e!

- Nungo bezeruek?

Mallebikuek-eta. Astuaz etorten zien, kuadrilla galantak, ez bat eta bi. Baten bat karruaz be etorten zala dakat

San Pelaixo inguruko lautadak, garitza bat ziraneke sasoian.



akorduen. Zaku haundi batzutan ekarten eben, garandute eta astuari ondo lotute. Baskulan pisau, laga hantxe eta Eibarrera jutun zien, merkaure. Guk urundu eta bixamone-rako prest eukitzen genduen. Orduen etxerik ez Errotabarritik harutz eta Eibartik bueltan etozenien, urrinera ikusten nittuzan astuok, Garzia-Monen etxie baiño beheragotik, autopistian sarrerie baiño harutzagotik.

- Ze genero ekarten zotsuen?

Artue eta garixe. Alde bati-
en garixe apurten gendun eta bestien artue. Garixe ordureko asko bajaute euen, iñoz-iñoz agertzen zan, baiña artue beti. Haraz gero morokille eta taluek eitten zien eta txarrixai be emoten jakon, pare bat eskutakada-

edo, uraz ondute. Baserri batzuk asko gastatzen eben.

- Zuen irabazixek zelakuek izeten zien?

10 kilotik bat hartzen genduen eta geratzen jakuzen zakukadak urunek. Horrek saldu eitten genduzan; egixe esateko, erreiz saltzen zan.

- Entregurik bai, udaletxien edo dana dalakuen?

Ez, ordurako amaittuta euazen gerra osteko horrek gauzok. Guk pagau gure kontribuziñue eta kitto!

- Inguruen ze beste errotaren entzutie dakazu?

Malengo eta Matxin gorago, Sallabenten Bekoerrotta, Eitzan Kóndia, Olarrien Askasibar eta Eibarrera bidien, Otolan, be beste pare bat. Danak amaittute oin eta ogixe, panaderixan!

Estibalitz González

LEIRE MAYORA
PODOLOGOA

Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
☎ 943 17 47 44

san pelayo
clínica dental hortz klinika

San Pelayo 5, 1º
Ermua (Bizkaia)

Olatz Garcia Arregui

943 17 04 04

OSASUNA • ESTETIKA
EDERTASUNA

Marfil

Ile-apaindegia bat baino gehiago!!

Egokitutako burua garbitzeko konketa

943 17 28 09 • Goienkale 12

SAGARDUI
poltsak

Zubiaurre, 29 - Ermua - 943 170305



KRABI

Ileapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56

Diputazio, 5

ERMUA